



**Asteazkena**  
**2008-02-27**

VIURTEA 1.372.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



## Le Fou eta Kokein taldeak asteburuan Bonberenean

**TOLOSA** Euskaldunek azken lana aurkeztuko dute; «gure esperientziak hitz egiten dugu», diote z



## Bost urte eta gero, konpartsa herrikoia egingo dute jaietan

**VILLABONA** Izena emateko aukera zabaldu dute, telefono zenbaki bat eta e-mail helbide bat 6

## Euroagindua datorren astean erabakiko dute

**VILLABONA** Eneko Galarraga espainiaratzearen aldeko eskaria egin zuen atzo Fiskaltzak 6

Aranburu jauregian ikusgai dagoen artista tolosarraren erakusketako bi lan. TXETXO GAZTAÑAGA

## ESENTZIAK GARRANTZIA HARTZEN DUENEAN

**TOLOSA** Aranburu jauregian ikusgai daude Txetxo Gaztañagaren koadroak; apirilaren 5era arte izango da ikusteko aukera 4

**ARRATZAIN** TOLARE SAGARDOEGIA

Egunero irekita  
[www.agroturismoarratzain.com](http://www.agroturismoarratzain.com)  
[info@agroturismoarratzain.com](mailto:info@agroturismoarratzain.com)  
 Arratzain Zahar Baserria • Tel.: 943-36 66 63  
 20170 USURBIL

# Kokein eta Le Fou entzuteko aukera, larunbatean, Bonberenean

**Kultura** » Martxoari hasiera emateko kontzertua izango da etxe okupatua; emanaldia 22:00etan hasiko da.

## ESTI EZEIZA

Martxorako ere egitarau oso interesgarria prestatu du Bonberenea. Hilabete honetako asteburuetan ere musika izango da protagonista Tolosako etxe okupatua.

Hasteko, larunbat honetan, talde euskaldun bat eta kataluniar bat izango dira eskenatoki gainean. Kontzertua 22:00etan hasiko da. Alde batetik, Kokein taldekoak etorriko dira *Mundu margotu berri bat* beraien azken argitalpena aurkezteko asmoz. Bestetik, Le Fou izango da, beraien musikaren berri emateko.

Gainera, batera aritzen diren bigarren aldia izango da, bezperan, hau da, ostiralean, batera ariko batiara Irungo Tunk aretoan.



Kokein talde eibartarra izango da larunbatean Bonberenean. HITZA

## «Abestietan guri gertatuko gauzetaz nahiz sentitutakoetaz hitz egiten dugu»

**ZALOA URAIN** » Kokein taldeko abeslaria

**Musika** » 'Mundu margotu berri bat', hirugarren diskoa aurkezteko du Kokein talde eibartarrak, larunbat honetan.

## E. EZEIZA

Kokein taldearen hirugarren diskoa da *Mundu margotu berri bat*, eta aurrekoekin egin zuten bezala, hau aurkeztera etorriko dira Bonberenean. Taldeko abeslari da Zaloe Urain (Eibar, 1976) eta inguruko guztiak gonbidatzen ditu beraien musika entzutea, «gauza berriak ikusteko eta ezagutzeko aukera izango baitute».

**Nolakoa izango da larunbateko kontzertua?**

Bertan, *Mundu margotu berri bat* diskoak abesti gehienak joko ditugu, eta horiekin batera, aurreko lanetakoak.

**Zuekin batera Le Fou taldea ariko da.**

Kataluniako lagun batzuk dira eta

urtean behin-edo etortzen dira hona gurekin kontzertu batzuk ematera. Gero, gu ere joaten gara hara, beste batzuk ematera. Leku berrietan jo eta inguru desberdinak ezagutzeko aukera ematen digu honek, guri nahiz haiei. Azkenean musikariaren artean lagun egin gara eta gustura ibiltzen gara elkarrekin.

**Urte eta erdiz geldid egon ondoren, duela egun gutxi hasi zarete zuzenekoekin, zer moduzkoa izan da itzulera hori?**

Oso ona, izugarritzko gogoia genuen. Hala ere, denbora tarte horretan gauza asko egin ditugu. *Mundu margotu berri bat* diskoarekin batera DVD bat ere kaleratu dugu. Hau, Elgetako Kafe Antzokian grabatutako zuzeneko bat da. Bertan, era akustikoan egin genituen kantuak biltzen dira. Izan ere, aurreko diskoa amaitu ondoren, akustiko hori prestatu genuen, eta kantuak aurkezteko zuzeneko batzuk eskaini genituen. Ondoren abesti berriak prestatzen aritu gi-

nen eta azkenik disko hau grabatu dugu. Tartean gainera ama izan naiz, eta gauzak pixka bat atzeratu egin ditugu.

**Zer moduzko harrera ari daizaten diskoa?**

Lehendabiziko kontzertua hila-ren 8an eman genuen Eibarren, eta oso gustura. Emanaldi gehiago eskaintzeko desiatzen gaude, guk ez baitakigu kontzerturik eman gabe egoten. Gainera, oraingoaz harriera ona ari daizaten. Azken batean, guk nahi duguna egiten ari gara, eta pozik egoteko behar dugun gauza bakarra da kontzertuak ematea. Mementoz bat eman dugu eta beste hamar inguru lotuta dauzkagu.

**Aurreko diskoetan ez bezala, oraingoan zuek egin duzue dena, sortzea, grabazioa nahiz ekoizpena.**

Dena den, hiru diskoetan egon da Sante teknikari moduan lan egiten. Bestetik, azken lanean, Haritz Lete bateriak teknikari lanak ere egin ditu eta lan handiagoa egin du

grabazioan. Oraingoan, horrenbeste denbora hartu dugunez abestiak begiratzeko eta guk geuk dena egiteko gogo gehiago genuen. Oso esperientzia ona izan da eta denon artean lan handia egin dugu, eta inoiz baino gehiago gozatu dugu.

**Gustura geratu zarete emaitzarekin?**

Bai, gainera lokalean lan handia egin genuen, eta horrek ahalbidetu zuen, grabatzeko garaian bagenekien nolako abestiak nahi genituen. Hala, ahotsarekin nahiz instrumentuekin jolasteko aukera gehiago izan dugu, horrela abesti bakoitzak bere esanahia aurkitu du.

**Mundu erreala hitz egiten duzue zuen abestietan.**

Guri gertatutako gauzetaz nahiz sentitutakoetaz hitz egiten dugu. Dena den, *Mundu margotu berri bat* izenburua ipini diogu diskoari, guk ikusten dugun mundua baita. Gainera margotu berri dugu, eta guk horrela ikusten dugu.

## Laburrak

### Saloura bidaia antolatuta du ekainerako Harizpek

**ASIA** » Harizpe jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak antolatuta, Salouera (Herrialde Katalanak) joateko aukera dago ekainaren 1etik 15era. Bidaia prezioa 401 euro-takoa da bazkide ez direnentzat, eta 395 bazkideentzat. Prezio horretan sartzen dira autobusa, egoaldi pentsio osoan, bidaia aseguru eta gidari-laguntzailea egonaldi osoan. Izen-emate elkartearen bertan egin daiteke.

### Harizperekin Biasteriko upategira joateko aukera

**ASIA** » Biasteriko (Arabar Errioxa) upategira txangoa antolatuta du Harizpe jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak. Martxoaren 28an joango dira, baina izen-ematea martxoaren 26a bitartean egin daiteke egoitzan bertan. Bidaiko txartela 31 euro kostako zaie bazkide ez direnei, eta hiru euro gutxiago, bazkideei.

### Babarrun landaketari buruzko saioak martxoan

**HEZKUNTZA** » Itsasmendikoi Fraisorok, Tolosako Babarrun Elkartearekin batera, Tolosako babarrunaren landaketari buruzko ikastaroa antolatuta du. Jardunaldiak martxoan lehen hamabostaldian burutuko dira, guztira 4 hitzaldi izango dira. Zehazki, Martxoaren 3, 4, 12 eta 13an. Informazioa eskuratu eta izena emateko IMK Fraisorora 943 692 166ra deituta egin daiteke. Ikastaroaren kostea 6 euro-takoa da.

### 'Lio embarazoso' izango da ikusgai etzi, Leidorren

**KULTURA** » Ostiral honetan, Leidorren Judd Apatow-en *Lio embarazoso* filma izango da ikusgai 22:30ean. Hau bera ikusi ahal izango da larunbatean 17:00etan. Egun berean, iluntzean, 19:30ean, Sam Garbarskiren *Irina Palm* izango da ikusgai. Eguneko azken saioan berriz, hau da, 22:30ean, Mikel Newel-en *El amor el los tiempos del colera* film ezaguna eskainiko dute. Azken bi filmek igandean ere ikusi ahal izango dira, azken bi saioetan.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

## S Soka motzean

### «Jotzean interpretatzen duzun hori gehiago sentitzen da»

#### IÑIGO AGIRRE

Gitarra-jotzailea eta irakaslea

#### ERREDAKZIOA

Iñaki ere deitzen diote (Tolosa, «jaioturteak ez du inporta»).

#### Musika zertarako?

Sakonago bizitzeko.

#### Gitarra eskuan, eskenatokian. Soketako bat hautsi egin da.

Jotzen jarraitu behar, baina sufrizten.

#### Pirateoa.

Kaleko legea da.

#### Musika talde bat?

Water Report. Bach-en Brandenburgoko kontzertuak garai hartako musika tresnekin jota ere asko gustatzen zaizkit.

#### Zein soinu dauka bizitzak?

Batuetan isiltasuna, bestetan hots gehiegi eta bestetan gozoa.

#### Zer egin Bisbal beti entzuten duen auzokoarekin?

Batuetan pertsona atseginenek ere ez dute musika onena entzuten. Hala ere, orain bertan Bisbalek talde oso ona dauka.

#### Nola ikusten duzu musika irakaskuntza?

Naturala izan behar du, inor behartu gabe.

#### Irakasle ala musikari?

Biak, bakoitza bere neurrian. Baina lehenik musikaria naiz.

#### Kontzertu bat ikusi ala kontzertu bat egin?

Egin. Jotzean interpretatzen duzun hori gehiago sentitzen da.

#### Zer ez dizut galdetu?

Zein proiektu ditudan: Tolosaldean Itzalak eta Manent talde berria. Bakarleri ere hasiko naiz betiko euskal kantak jotzen.



N.G.

## Zelaia, Labaka eta Galarraga Gipuzkoako txapeldun

**Pilota** » Real Sociedad taldearen aurka 18-16 irabazi zuten Aurrera-Saiaz taldekoek Bergaran jokaturiko partidari.

#### ERREDAKZIOA

Pasa den asteburuan infantilen mailan Bergaran jokaturiko Gipuzkoako Txapelketaren finala Aurrera Saiaz pilota eskolako gaztetxoentzat izan zen. Hain zuzen ere, Aritz Zelaia, Eneko Labaka eta Xabier Galarraga (ordezkari beza-la) pilotariek eskuratu zuten txapela Real Sociedad elkarteko pilotarien aurka 18-16 irabazi ondoren.



Gipuzkoako txapelketa irabazi dute Galarragak, Zelaiak eta Labakak. HITZA

#### Renobales-Galarraga, finalera

Euskadiko Klubien Txapelketan ere aritu ziren Aurrera Saiazko pilotariak, senior mailan. Bikoteka Ugaitz Renobalesek eta Eneko Galarragak finalerdia irabazi eta, beraz, finalean izango dira.

Jardunaldiaren alde ilunean, porrotak ere izan ziren eskualdeko elkarteko pilotarientzat. Hala, txapelketa berdinean, Ioseba Baezek ez zuen finalerdia irabazterik izan banakako senior mailan, ezta Luis A. Zubirik ere, jubenilen mailan. Azkenik, Udaberri Txapelketan Egiguren-Barandiaran bikoteak galdu egin zuen.

### DISEINATZAILEA

Donostia aldeko publizitate eta marketin enpresa batek diseinatzaile bat behar du.

#### Erreferentzia: 2008 IR-DP

#### Eskatzen da:

- Diseinuaren esperientzia izatea.
- Diseinu programak menperatzea (Freehand, Photoshop, Quark...).
- Publizitate produktuen ekoizpenean esperientzia izatea.
- Harremanetarako gaitasuna izatea.
- Gidabaimena eta autoa izatea.

#### Eskaizten da:

- Urte bateko kontratua (luzatzeko aukera).
- Egun erdiko kontratua (goizez edo arratsaldez aukeran).
- Lanean berehala hastea.

Bidali curriculumak [gizabaliabideak@jarduna.net](mailto:gizabaliabideak@jarduna.net) helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, martxoaren 9a baino lehen.

# TXOTX

#### Urbartarte

Ergoiena auzoa  
Tel.: 943 180 119 Ataun

#### Laja

Arkolla auzoa, 33 ([www.lajaerretegia.com](http://www.lajaerretegia.com))  
Tel.: 943 646 309 ([info@lajaerretegia.com](mailto:info@lajaerretegia.com)) Hondarribi

#### Lindurrenborda

Nabaz auzoa  
Tel.: 948 637 212 Lesaka

#### Ola

Meaka auzoa, 102  
Tel.: 943 623 130 Irun

#### Aduriz

Aranedef bidea, 28. Iturriotz auzoa  
Tel.: 943 494 353 Oiartzun

#### Egi Luze

Zamalbide auzoa  
Tel.: 943 523-905 Errenteria

#### Txopinondo

Sagamotegia bidea, Lan Zelai ([txopinondo@wanadoo.fr](mailto:txopinondo@wanadoo.fr))  
Tel.: 559 546 234 Azkaine

#### Bordatto

Bordatto etxaldea  
Tel.: 559 491 822 Jatsu

#### Donosti

Zamalbide, 8  
Tel.: 943 526 041 Errenteria

#### Txindurri Iturri

Mendari auzoa ([www.txindurri.com](http://www.txindurri.com) - [txindurri@txindurri.com](mailto:txindurri@txindurri.com))  
Tel.: 943 199 389 - 699 684 490 Itziar

#### Arratzain

Arratzain Zahar baserria ([www.agroturismoarratzain.com](http://www.agroturismoarratzain.com))  
Tel.: 943 366 663 ([info@agroturismoarratzain.com](mailto:info@agroturismoarratzain.com)) Usurbil

#### Begiristain

Iturrioz baserria  
Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta

#### Isastegi

Aldaba Txiki, 15-A ([www.isastegisagardotegia.com](http://www.isastegisagardotegia.com))  
Tel.: 943 652 964 ([isastegi@isastegisagardotegia.com](mailto:isastegi@isastegisagardotegia.com)) Tolosa

#### Sarasola

Bebailara auzoa  
Tel.: 943 690 283 Asteasu

#### Zabala

Garagartza baserria ([www.rzabala.com](http://www.rzabala.com))  
Tel.: 943 690 774 ([info@rzabala.com](mailto:info@rzabala.com)) Aduna

#### Otazu

Otazu baserria  
Tel.: 943 670 044 Leaburu

#### Eguzkitza

Eguzkitza baserria - Usabal auzoa, 35  
Tel.: 660 654 317 Tolosa

#### Erreka

Erreka auzoa  
Tel.: 948 510 625 Leitza

#### Elutxeta

Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria  
Tel.: 943 556 981 Urnieta

#### Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa  
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

#### Otsua-enea

Osiñaga auzoa  
Tel.: 943 556 894 Hernani

#### Iparragirre

Osiñaga auzoa [www.iparragirre.com](http://www.iparragirre.com)  
Tel.: 943 550 328 Hernani

#### Rezola

Ipintza baserria - Santio Zaharra - [rezolasagardotegia@euskalernia.org](mailto:rezolasagardotegia@euskalernia.org)  
Tel.: 943 556 637 Astigarraga

#### Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)  
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

#### Gartziategi

Gartziategi baserria [www.gartziategi.com](http://www.gartziategi.com)  
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

#### Akelenea

Oialume bidea 57 [www.sidreriaakelenea.com](http://www.sidreriaakelenea.com)  
Tel.: 943 333 333 [info@sidreriaakelenea.com](mailto:info@sidreriaakelenea.com) Astigarraga

#### Gurutzeta

Oialume bidea 63 (sarrera Ergobia auzotik) [gurutzeta@gurutzeta.com](mailto:gurutzeta@gurutzeta.com)  
Tel.: 943 552 242 [www.gurutzeta.com](http://www.gurutzeta.com) Astigarraga





## Errealitatearen gaineratik esentzia

**Erakusketa** » Txetxo Gaztañaga artista tolosarrak bere lanak jarri ditu ikusgai Aranburu jauregian; apirilaren 5era arte egongo dira.

### INIGO TERRADILLOS

Txetxo Gaztañagak (Tolosa, 1940) estreinakoz jarri ditu ikusgai Aranburu jauregian bere artelanak. Besteak beste 25 urtez Titirijai Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdiko kartelak egin dituen artista-aren koadroak ikusteko aukera

izango dute jauregira gerturatzen direnek apirilaren 5era arte.

### Marrazkilaria profesioz

Diseinu grafikoa izan da Gaztañagaren lanbidea, baina gaur egungoarekin ez zuela zerikusirik dio: «lehen marrazkilaria ginen ho-

netan lan egiten genuenak, eskuz egiten baikenuen, eta ez ordenagailuarekin orain bezala». Etiketak, liburuxkak, kartelak... egin izan ditu, beraz, profesionalki, eta bere denbora librean, beti egin izan dio tartera marrazteari. «Pintatzea ere betidanik gustatu izan zait, baina ez dut denbora gehiegirik izan».

40 urte betetzean jarri zuen lehen erakusketa Euskadiko Kuxan, eta ondoren, Gure Kaiolan jarri zuen elkartearen 75. urteurre-

nean. Hortik iritsi zitzaion Aranburun jartzearen proposamena. «Jubilatzean bertan egitea erakusketa porposatu zidaten, eta hala egin dut. Jubilatutik ondoren, urtebetez edo egon naiz pintatzen, eta 70 koadro prestatu ditut Aranburun jartzeko».

Denetarik topa dezakegu erakusketan, eta teknikari dagokionez ere, askotarikoak erabili ditu; «arkatza da gehien gustatzen zaidana, eta horretaz gain, argizaria, akuarela, oleoa eta tintak ere erabi-

li ditut». Koadroetan ikus ditzakegunei buruz, inpresioak, sentsazioak direla dio, «esentziak baitu garrantzia, eta ez formak». Eta bere lanek dituzten koloreek zerbait edo egon naiz pintatzen, eta 70 koadro prestatu ditut Aranburun jartzeko».

Pasa den ostiralean izan zen erakusketaaren inaugurazioa, eta oso gustura dago tolosarra jende ugari izan baitzen. Orain atsedendaldi bat hartuko duela dio, baina berriro hasiko da margotzen, «gustatzen bazaizu ezin baituzu utzi».

# Ur kudeaketa izan da osoko bilkurako gai zailena

**Amezketaketa** » Hitzaldi bat eskatu du EAE-ANVk datu eta informazio gehiago emateko asmotan. KMTk bere datuak eman ditu.

## ERREDAKZIOA

Amezketako udaletxean egindako osoko bilkuran, besteen artean, ur kudeaketaz aritu ziren, baina ez zuten erabaki zehatzik hartu. Larretak (EAE-ANV) informatu zuen uraren inguruko hitzaldia prestatu nahian dabilzala. Dirua bakarrik kontuan izan gabe «beste alderdi batzuk aztertu nahi direlako». Asmoa Iñaki Antigüedadek hitzaldi bat eskaintzea zen baina «ez da posible izango ziurrenik». Beste aukerak aztertu ondoren zerbakiak egingo lirateke. Halere, beste pertsona batekin harreramanetan daude hitzaldia emateko.

Zabalak 2007ko ur kudeaketaren datuak eman zituen eta Kimu Berriak Taldea (KBT) honako ondorio hauek iritsi da: 2007an Ur Kontsorzioari ordaindu zaiona, ura gehi ur kontrola (saneamendua), guztira 61.925,65 euro. Amezketan gastatu diren metro kubikoak gehi 25.745 euro, berdin 53.098 m<sup>3</sup>. Kontsorzioari metro kubikoko 1,166 euro m<sup>3</sup> ordaintzen ari zaio: «Kudeaketa osoa kontsorzioan sartuta dagoen herri batekin konparatuta (Anoeta) m<sup>3</sup>ko 10 zentimo gutxiago».

«Kontsorzioan sartuz gero badakigu herritarrei asko igoko litzatekela baina Udalak %50eko hoberia ezarriko lioke» eta kontuak honela geratuko lirateke: 31.221,62 euro. Aurten baino 4.000

euro gehiago. «Diru kantitate berdintsuagatik» herriak irabaziko lukeena, azpiegiturako inbertsioak egitea Kontsorzioak, urtean 46.000 euro. Ondorioa hau da: «Kontsorzioari ordaintzen ari garela alta eta bajaran bageunde bezala eta bueltan ez dugu ezer jasotzen». Beraz, gehiago aztertzeko gaia da.

Herenegungo gai zerrendan bost puntu jorratu zituzten: aurreko ezohiko bilkuretako agirien onartze proposamena (onartuta), alkatetzaren lau ebazpen (tartea), joan den urteko bigarren seilabeteke ur eta zaborren erroldak onartzen direla jakinarazten da, martxoaren 25ean kobratzeko agindua), hartutako erabakiak, batzordeen informazioa eta galdere-tarako tartea.

Hartutako erabakien artean Naturgas Energia distribucion SAUren 2007. urteko likidazioa izan zen. Honek, zorupea erabiltzeagatik ezarritako prezio publikoa ordaintzeko prozedura betez, 2007ko ekitaldian Amezketan 32.085 euro fakturatu zituen. Beraz, Udaltzat %1,5eko tasa ezar-tzea onartu du.

## Batzordeen informazioa

Hirigintza batzordeak bilera honakoa landu zuen Ola auzoko industriguneaz: pabiloiak errekaraz beste aldera eraikitzeak suposatzen zituen kalte-ordainak baloratu, azterketa ekonomikoa eskatu zitzaizen lur-jabeiei.

Kultur Etxearen finantzaketaz ere hitz egin zuten, honen kokapena zehaztuta ez dagoenez, ez zen onartu urte anitzeko finantzaketa izaera ematea. EAE-ANV eta AEL taldeek Kultur Etxearen kokale-

kua jakin ondoren hartu beharreko erabakia dela adierazi zuten.

Kultur Batzordeak aurrera eramanez nahi dituen proposamenak eman zituen ezagutzera: bertso afariak, ipuin kontalariak, kultur emanaldiak... Martxoaren 8an *Greban gaude* antzezlanaren egitea onartu dute. Amezketako euskara biltzea nahi dute ere, horretarako beste hizkuntzetan eginiko lanak ikuskatu beharko lirateke.

Bukatzeko, alkateak ezker abertzalearen azkeneko aldzikariaren egiten ziren azalpenak argitze-

**Ur kudeaketari buruzko hitzaldi bat antolatuko dute, hainbat aspektu aztertu nahi direlako**

**Martxoaren 8an 'Greban gaude' antzezlanaren egitea onartu du Kultur Batzordeak**

asmoz adierazpenak egin zituen, KBTren izenean, eta Udalean, «ezberdintasun guztiez gain batasun guneak bilatzeak lehentasuna» duela adieraziz.

## Ezohiko bilkurari dagokiona

Aurreko ezohiko bilkuran EAE-ren mozioa onartu zuten, baina Jesus Iñurritak alkateak eskatuta, zera azpimarratu nahi izan du: «Egoera honen aurrean babesa emango dut baina aktan jasota geratzea nahi dut orain dela 4 urte. Amezketak taldea ilegalizatu zenean, berdina eskatu nuen eta oraingoan bezalako erreakzioa eta erantzuna orduan jasotzea gustatuko litzaidake».

**Euskal Herriaren Astearen baitan gaur Alegiko Kultur Etxean emanaldia dago**

## ERREDAKZIOA

Gaur, Alegiko San Juan eskolan Euskal Herriaren astearen baitan ekitaldi batzuk egingo dituzte Kultur Etxean. 15:00etatik aurrera hasiko dira, eta 16:00ak baino lehen bukatuko dute seguruenik.

Bertsoak egingo dituzte batzuk, errezitatu ere egingo dute olerkiren bat, eta Txintxarri Txiki abesbatza parte hartzen duten ikasle batzuk ere saioa eskainiko dute, 3 edo 4 kanta eginez. Astearen zehar jolasorduan euskal jokuak egiten ari dira. Datorren hiruhilabetean Txina landuko dute aste batean zehar.

## Laburrak

**Zirkulazio zergari dagozkion ordainagiriak**

**IKAZTEGIETA** » 2008. urteko zirkulazio zergari dagokion errolda onartu dute Ikaztegiak, eta honi dagozkion ordainagiriak borondateko epean ordaintzeko jarriak izan dira. Ordaintzeko epea apirilaren 10era arte dago irekita, hilabete eta erdi inguru, beraz. Ordainketa banketxean nahiz udaletxean egin ahal izango da. Helbideratuta dauden ordainagiri guztiak apirilaren 10ean, azken egunean, kobratuko dituzte.

**ENHA tramitatzeko azken egunak udaletxean**

**ALTZO** » Altzoko udaletxean otsaila bukatu arte Euskal Herriko Nazio-tasun Aitorrena tramitatzeko aukera egongo da. Udaletxeko ordutegiaren baitan egin daiteke, eguerdian, hain zuzen ere eta udaletxean bertan. Euskal Herriko Nazio-tasun Aitorrena egiteko 15 euro ordaindu behar da, eta horretaz gain, Altzoko edo norbere herriko errolda agiria eta hiru argazki txiki. Handik egun gutxira iristen da agiria.

## Zurea da hitza



# Bedaioko ekitaldiak

## ARTUBI ELKARTEA

Bedaion hasi dira berriz ere urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen. Artubi elkarteak otsailen barrikotean antolatuko duen, giro ederrean.

70 lagun bildu ziren eta esan bezala giro bikaina izan zen. Sagardotegi menuaz gozatu ahal izan zuten bertan bildu zirenek, eta bakarren batzuk goizaldera arte luzatu zuten gaua giroa mus jokuak.

## Afaria emakumeentzat

Indartsu hasi dira beraz, Bedaion. Baina dagoeneko datorren ekitaldian ari dira pentsatzen, datorren larunbatean baita. Bedaioko gizon-zokek bertako emakumei afaria prestatzen diete elkarteak. Aurtengoarekin bigarren aldia da afaria ahal egin dela eta lehenengoaren arrakasta ikusita berriro errepikatzea pentsatu dute. Eta gainera gizon-zokeak prest dauden bitartean urte askotan jarraituko duela uste dute.

## Lore bana eraman afaltzera

Dagoeneko 57 emakume eman dute izena Artubi elkarteak. Larunbateko sorpresaz beteriko gaua izaten da. Aurten emakume bakoitzari lore bat eramatea eska-

tu zaio. Edozein motatako lorea, freskoa nahiz lehorra, paperezkoa, oihalezkoa, plastikozkoa, naturala, egurrezkoa, eskuz egindakoa... Irudimenari ere bide luzea ireki zaio. Seguru gaude aspaldian elkar ikusi ez diren lagun asko bilduko direla eta oso ondo pasako dutela. Beraz, lorea eraman...

Urte osoan zehar egingo dituzten ekitaldiak antolatu dituzte, datat jarrita daude, eta gutxinaka jakitera emango dituzte bedaiotarrak. Tartean ikastaroren bat ere badago, baina aurrerago izango da. Mementoz, larunbatean ikusiko dugu elkar.



Lore bat eramatea eskatu dute. HITZA

# Irazu eta Zubeldia bertso-bazkarian

**Alegia** » 28 euroko txartelak salgai daude tabernetan, larunbateko bazkarirako eta bihar da erosteko azken eguna.

## ERREDAKZIOA

Datorren larunbatean, martxoaren lehen, hain zuzen, Zazpi Astoren Gainean bertso eskolak antolatutako bertso-bazkaria dago. Honakoa, bertsolari hauek izango dira entzungai: Jexux Mari Irazu eta Iker Zubeldia, punta-puntako bertsolariak, beraz.

Alegiko Txintxarri jatetxean izango da, 28 euroren truke. Entsa-

lada, porru hojalde edo hostorea, makailoa saltzan edo saiheitsartekoa aukeran (entrekot), sagar tarta postreerako eta bukatzeko, kafea eta edaria.

## Sarrerak tabernetan salgai

Sarrerak herriko tabernetan lor daitezke (Ixkiña, Hilarionea, Etxeberrianea, Jubilatueanean, Arruenean, Kafean eta Txintxarri bertan) eta bestela Kultur Etxean ere bai. Izena emateko epea, berriz, bihar bukatuko da, beraz, interesa dutenek azkar ibili beharko dute. Antolatzaileek jendea animatu nahi izan dute, «bertsolariekin eta herritarrekin ondo pasatzeko aukera baita».



Bedaioko barrikotean 70 lagun bildu ziren. Sagardotegia zirudien. HITZA



# Eneko Galarraga Godoiren aurkako euroagindua asteartean erabakiko da

**Villabona** » Frantziako Fiskaltzak espainiaratzearen aldeko eskaria egin zuen atzo Paueko Auzitegian.

## ASIER IMAZ

Paueko (Frantzia) Auzitegiak Eneko Galarraga billabonatarren aurkako euroagindua aztertu zuen atzokoan, bigarren aldiz. Lehen audientzian, urtarrilaren 29an, Frantziako justiziak Espainiako frogari gehiago eskatu zituen, euroagindua onartu edo ez erabakitzeko, bien bitartean, gaztea aske geratu zen.

Billabonatarra Urruñan (Lapurdi) urtarrilaren 24ean atxilotu

zuten, ETA erakunde armatuko partaide izatea leporatuta.

## Frantziako Fiskaltza aurka

Eneko Galarraga Paueko Auzitegian aurkeztu zen atzo audientzian, Espainiako justiziak bere aurkako euroagindua inguruko frogari Frantziako justiziari igorri ostean.

Atzo Pauen egin zen audientzian, Frantziako Fiskaltzak espainiaratzearen aldeko eskaera egin zuen.

## Erabakia martxoaren 4ean

Galarraga Pauen egon ondoren, Ipar Euskal Herrira itzuli zen eta bertan jakingo du martxoaren 4ean, asteartean, Frantziako justiziak bere aurkako euroagindua



Iragan astean Eneko Galarragaren senide eta lagunak prentsaurrekoan. A.I.

onartu duen hala ez. Espainiaratzea onartzen baldin badu Auzitegiak, agindu indarrean jartzeko 3 egun igaroko direla aipatu du sendiak, «ondoren beste zazpi egun igaroko dira paperak eta dokumentuak antolatuta bitartean. Gero gehienez ere 10 egun izango litzake Frantziako poliziak atxilotu eta Espainiaratu bitartean».

Kasu honetan, epailetik epaile-rako entregaizango litzatekeela aipatu dute senideek, «ondorioz inkomunikaziorik ez litzateke egongo».

## Manifestazioa Villabonan

Eneko Galarragaren senide, lagun eta herritarrek manifestazioa egin zuten herenegun Villabonan, *Eneko bizi eta lan Euskal Herrian!* lelopean. Bertan 80 lagun elkartu ziren Galarragari babesa emateko.

Manifestazio deialdia egiterako unean, «euroagindua bertan behere» geratzea eta «Enekoen eskubideak errespetatzea» eskatu zuten senide eta lagunak.

## Laburrak

### Ipuin kontalaria bihar 17:30ean Kultur Etxean

**IBARRA** » Ibarroko Udal Liburutegiak antolatuta ipuin kontalari saio bat egongo da bihar 17:30etik aurrera Benito Izagirre kultur etxean. Lur Kortak kontatuko ditu ipuinak eta 4-8 urteko haurrentzat izango dira.

### Ibarra FSk garaipena lortu zuen azken segunduetan

**IBARRA** » Ibarra FSk hiru puntuak lortu zituen azken unean Irurtzuenen (Nafarroa) Xotaren aurka 5-6 irabazi ondoren. Partida bitxia jokatu zuten bi euskal taldeek iragan asteburuan. Nafarrak 4-0 jarri ziren aurretik baina ibartarrek markagailua berdintzea lortu zuten hasieran eta ondoren 4-5arekin partida irabaziko zutela zirudien. Hala eta guztiz ere, azken minutuetan Xotak 5-5eko gola sartu zuen. Amaierarako 4 segundu falta zirela ordea, Ion Ander Karrerak garaipenaren gola lortu zuen ibartarren zoramerako.

### Kiroldegiko abonuari dagokien udal-tasak

**IBARRA** » 2008ari dagokien kiroldegiko abonuari dagokien udal-tasaren ordainagiriak kobratuko dituzte martxoaren 15a baino lehen. Hortik aurrera bide exekutibo kobratuko dira. Ordainagiriak edozein bankutan ordaindu ahal dira.

### Eskualdeko hiru pilotariak bihar Galarretan

**ERREMONTA** » Erremontearren jaialdi berri bat ospatuko da bihar Hernaniko (Gipuzkoa) Galarretan, ostegunero bezala. Lau partida jokatu dituzte 16:00etan hasiko den jaialdian eta eskualdeko erremontistak bertan egongo dira. Bigarren partidari, Amezketako Imanol Altunak jokatu du hirukoia osatzu Ezkurra-Eizagirreraren aurka. Ondoren Zeberio II.a eta Altuna II.a lehiatuko dira elkarren artean. El-duaindarrak Urrutiarekin jokatu du eta amezketarrak Lizaso izango du atzelari bezala. Bi partidak 40ra jokatu dira.

# Jaietan Konpartsa Herrikoia egingo dute bost urte ondoren

**Villabona** » Izena emateko hainbat aukera jarri dituzte, horien artean, telefono zenbaki bat eta e-mail helbidea.

## A. IMAZ

Villabonako jaietan Konpartsa Herrikoia egingo dute bost urtetan zehar geldirik egon ondoren. Konpartsa herritarrek antolatuta eta Oinkari dantza taldeak bultzatuko du. Izena emateko aukera berriz, zabalik aurkitzen da.

## 'Inude eta artzainak'

Villabonako udaltxean herenegun elkartu ziren herriko elkarte eta konpartsa inguruko eragileak. Bertan, bost urte geldirik

egon ondoren, herriko jaietan eta uztailearen 27an hain zuzen ere, Konpartsa Herrikoia egitea erabaki zuten, *Inude eta artzainak* izenarekin.

## Izena emateko epea zabalik

Lehen Konpartsa Herrikoia duela 15 urte inguru egin zuten Villabonako jaietan, hasieran jarraipena izan bazuen ere, azken bost urteetan geldirik egon den egitaraua izan da.

Uztailearen 27an, 11:00etatik aurrera, Konpartsa herrikoia elementuak kaleetan zehar ikusiko dira, puntu jakinetan geratuz eta dantzaren bat eginaz.

Dantzariak herritarrek izango dira eta «dantza errazak» izango dira. Eguerdian bazkari herrikoia egingo dute eta 18:00etan eman-

di nagusia eskainiko dute. Dantzariekin batera danborrada ere egongo da, garai bateko jantziekin pertsonaia batzuk egongo diren bezala, antzeppen lanen bat egingo dutelarik. Azkenik, hauekin batera musikariak ibiliko dira Konpartsa-aren inguruan.

Antolatzaileek herritarrei deia luzatu die, izena emateko epea zabalik dagoela aipatuz. Danborrarako, dantzatzeko edo pertsonaiez irteko zerrendak jarri dituzte eta astearteetan, 20:30etik 22:30era eta ostiralean 18:30etik 22:30era, Ikastolako garbanan atek zabalik egongo dira. Horretaz gain, telefono zenbaki bat eta e-maila ere zabaldu dituzte izena emateko aukeraz: 660 13 93 80a (Eneko) eta *harremanak@oinkari.net* helbidea.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Tabernaria.** Anoetako Itzuli Tabernak neska euskalduna behar du. 8 edo 4 ordutarako. Deitu ondorengo telefono zenbakietara: 635 74 52 91/943 69 4313.

### BESTELAKOAK

■ **Txakurkumea.** Border Colie arrazako txakurkume emea oparitzen da. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 658 70 59 12 (Xabo).

### GALDUTAKOAK

■ **Kartera.** Kutturru parkean kartera bat aurkitu dute eta ikaztegiatarako Udalena dago jasota. Udaletxeko ordutegia: 9:00etatik eguerdik 15:00etara.

### SALGAI

■ **Txakurrak.** Yorkshire (toy) arrazako 2 txakur saltzen dira. Pedigriarekin. Arra: 900 gramo. Emea: kilo bat eta 250 gramo. Deitu 618 95 32 12ra.



Konpartsa Herrikoia egin edo ez egin, herriko elkarte eta eragile ezberdinen artean erabaki zuten. ASIER IMAZ



Leitzako basoetako pagorik handiena duela 3 urte erori zen eta 60 tona inguru pisatzen dituela diote. MIGEL MARI BARRIOLA

## Aitzmurdiko pagadia eta Izaieta babesteko lanean dihardute

**Natura** » Herritarrek banketxe batean dituzten irabaziak Leitzalarrean bi proiektu egiteko bideratu dituzte eta martxan daude.

**NAIARA GARZIA**

CAN banketxeak duen programa bati esker, bertan dirua duten herritarrek eta enpresek irabaziak ze proiektuei zuzendu aukera dezakete, eta Leitzan joan den urtean aukeratu zituzten proiektuetatik bik Leitzalarrearekin zerikusi zuzena dute. Hauek orain ari dira bere fruituak ematen.

Juan Mari Barriola mendi zinegotzia da, eta bi proiektu horiek azaldu ditu. «Urte asko dira Aitzmurdiko pagoak moarratu edo mozten ez zirela, 80 inguru. Pago hauek erortzeko arriskua dute, baina beste zenbait moarratu dituzten arren, Pastaingo bordan, esaterako, inor ez zen ausartzen Aitzmurdiko pago handiekin hasia. Baina deus egiten ez bada azkenean denak eroriko direnez, CAN banketxean eskaera bati sartu zen, Leitzako pago handiak babesteko saiakera bat egiteko». Pagoak babesteaz gain, Aitzmurdin ibilbide bat egiteko asmoa dute.

Izaieta eremua babestea izan zen aukeraturako beste proiektua, eta hau aurrera eramateko ere orain ari dira lanean. «Aitzmurdiko 12.000 eurotako aurrekontua eskatu zen eta Izaietarako 15.000 eurotako».

### Aitzmurdiko pagadia

Barriolak adierazi duenez, Aitzmurdin bi lursail daude. «Batean 20 pago inguru daude, Leitzan



Trepalari taldekoek 5 pago handi eta 3 txiki moarratu zituzten. JUAN MARI BARRIOLA

dauden handienak. Bestea ere kontutan hartuta denera 70-80 pago egonen dira».

Bertako zenbait pago moarratzeko Trepalari taldeko 12 kide etorri ziren duela 2 aste, eta 5 pago handi eta 3 txiki moarratu zituzten. «Arnesarekin gora igo ziren eta motozerrarekin ibili ziren lanean. Nola urtetik urtera pagoren bat moarratuko den, beharbada gero Leitzako teknika ere erabiliko da baten bat edo beste moarratzeko».

Aurten 5 bakarrak egin ditugu, oso garesti ateratzen baita». Trepalari da Euskal Herrian hori egiten duen talde bakarrenetarikoa, baina bitartean, herriko langileak ere ikasten ari dira. «Ixkibargo inguru horretan aritu dira, baina zuhaitzak txikiagoak dira».

Aitzmurdiko pagodiaren kontserbazioaren programaren barruan ibilbide bat egiten dute. «Aitzmurdiko mendiko bi pisten artean dago, ibilbidea pista batetik bestera joan litzateke, pagoen

artetiko». Jendeari pago handien lekua dela erakustea, hori izan litzateke honen helburua. «Aitzmurdiko herriatik urrun dago eta jende askok ez du ezagutzen, baina garai batean baso hau ez zen basatia, bazegoen pago horiek lantzen zituen jendea. Moarratu ondoren ikatza egiten zuten».

### Kimuen zain

Moarratutako pago hauek nola erantzuten duten hurrengo urtean ikusiko da. «Hurrengo urtean ikusi beharko dugu hostoa nola ateratzen duten, eta horren arabera gehiago edo gutxiago moarratuko dira. Azken batean honera ingeles horiek etorri arte inork ez zeukan honi buruzko kontzientziarik. Horiek Europa guztian zehar horrelako tokien bila ibili ziren eta Leitzan gustatu egin zitzaizkien».

### Izaieta

Duela 12 urte uzolanean lan bat egin zen Izaietan, Leitzan dauden landareen bilduma antzeko bat

ibilbide baten barruan sartu zuten bakoitza bere izenarekin. Ibilbide «didaktiko bat» egitea izan zen helburua. «Hori egin zen izaiak galtzeko arriskua zegoela ikusten ari zirelako. Oso zaharrak daude, seguraski urte kopuru batean eroriz joanen dira denak. Haziak botatzen dituzte, baina lehenago aziendak jaten zituzten denak, orduan aukera bat emateko barruti bat egin zen».

Izaietan, herritarren diru laguntza honi esker, dena pixka bat berritzea da Udalaren asmoa: «txenda berritu nahi dugu, zubi berriak egin, informazioaren panela aldatu eginen da, izen bat jarriko da Izaieta non kokatuta dagoen jaitzeko, jende askok etorri eta aurrera jarraitzen baitu ez dakielako non dagoen, eta zuhaitz berriak sartuko dira. Gero zuhaitzak bakandu egingen dituzte, argi gehiago izateko, eta zenbaitek aurrera egiteko aukera izan dezaten».

Dagoeneko honetan langileak ere lanean ari dira eta duela pare bat asteburu Leitzako gazteak aritu ziren. «Ondoan haritzekin ere lan bat egiten ari dira, eta gazte hauek Izaietatik haritzak atera eta beste partzela horretan landatzen aritu ziren. «Gazteek urtero eskatzen dute lan bat egitea eskolako bidaierako diru-laguntza baten truke. Lehengo urtean erreka garbitu zuten eta aurten hau egin dute».

Juan Mari Barriola zinegotziak azaldu duenez, aurten CAN banketxean sartu den eskaera zabalagoa da. «Ez da zehazki Aitzmurdiko edo Izaietarako soilik, Leitzalarrea osorako baizik, bertako zuhaitzak eta leku bereziak mantendu eta babesteko».

## Informatikaren inguruko ikastaroak antolatu dituzte langileentzat

**Informatika** » Hiru ikastaro daude eta gehienera hamabost kideetako taldeak onartuko dira bakoitzean.

**N. GARZIA**

Cederna-Garalurrek eta beste zenbait erakundek langileentzako informatikaren inguruko 3 ikastaro antolatu dituzte: informatika munduan sartzen hasteko ikastaroa, internet eta posta elektronikoa eta Photoshop-aren ingurukoa.

Ikastaroak doakoak dira, eta institutuan emanen dituzte. Lehenengo datorren astean bertan hasi (martxoaren 3an) eta 26an amaituko da, 17:00etatik 20:30era emanen dutelarik, astelehenetik ostegunera. Bigarrena apirilaren 7an hasi eta 24ean amaituko da (astelehena eta ostegunetan, ordu berean) eta azkenekoa maiatzean emanen dute. 15 lagunetako taldeak onartuko dira gehienez. Izena emateko 948 62 51 22 zenbakira dei daiteke.

## T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarralde.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Iruia.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbula.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320



14°  
9°

GOIZA ESTALIA  
ARRATS. ESTALIA  
BEROENA 14°  
HOTZENA 9°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak**  
**S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai**  
**Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Altzo.** Udaletxean ENHA tramitatzeko aukera dago. 15 euro, 3 argazki eta errolda agiriara behar dira horretarako.
- **Anoeta.** Udalak ipuin marraztuen lehiaketa 8 urtetik gorakoentzat. Lanak ikastolan eta udaletxean utz daitezke.
- **Tolosa.** Miriam Mendoza ipuin kontari ariko da Haur Liburutegian (Errota) 3-6 urte bitarteko haurerentzat 18:00etan.
- **Tolosaldea.** Bikarte errusiar umeen harrerako elkarte ongilea udan, gehienbat umezurtegiatan bizi diren zenbait haur errusiarri harrera emango lieketen familien bila dabil. Informazioa, 605709022 eta 687860395 telefonotan.
- **Zizurkil.** Gutun Lehiaketa naturari buruz 6 urtetik aurrera. Bi lan aurkez daitezke, gehienez bi orrikoak. Gutunak Aiztondoko Zerbitzuen Mankomunitateko bulegora eraman behar dira, Zizurkilgo Muñoa kaleko 36 zenbakian.

### Erakusketa

- **Alegia.** Jose Luis Lopez tolosarraren margolanak daude Jubilatuen tabernan, asteartetik igandera bitarte, hilabete osoan zehar.
- **Tolosa.** Txetxo Gaztañagaren artista tolosarraren marrazki eta margolanak izango dira ikusgai Aranburu Jauregian.
- **Tolosa.** Isabel Mujikaren margolanak ikusgai daude Sorron koa-dro dendan.
- **Tolosa.** Tomas Hernandezen Mendizabal artista donostiarraren erakusketa Aranburu Jauregian. Inauerietako kartelen egilea da.

### Irteerak

- **Tolosa.** Iturritza jubilatutako elkarteak Corellara irteera antolatutako mar-



## Saharako bandera, udaletxean

**TOLOSA** ● Saharar Errepublikako Aldarrikatu zuteneko 32. urteurrena da gaur. Herri horrekiko elkartasuna adierazteko helburuz, Tolosa-ko udaletxeko balkoian Mendebaldeko Sahararen

bandera jarri zuten herenegun zintzilik, ikurrinaren ondoan. 30 urte baino gehiago daramatzate saharrak Algeriako Tindouf hiriararen ondoko basamortuan, errefuxiatu kanpamentuetan egoera latzean. i.t.

txoaren 14rako. Izen-ematea, elkartean 35 eurotan (bazkideek, 33). Portugalera eta Fatimara ere bidaia antolatu du elkarteak, apirilaren 14etik 19era. Izen-ematea, elkartean.

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkartek Asturiasera bidaia antolatutako apirilaren 23tik 28ra (pentsio osoa 250 euro, 245 ez bazkideek). Izen-ematea, elkartean bertan egin daiteke.

■ **Zizurkil.** Irteera Iparraldera Emakumearen egunean: goizean Biarritzeko Txokolate Museoa eta bazkaria Baionako Trinketean. Izen-ematea, 28 eurotan, Aurrera plazako udal bulegoetan eta liburutegian.

### Kirolak

■ **Tolosa.** Javier Urkolaren ome-nezko VII. Herri Duetloia martxoaren 8an, 16:00etan hasita: 2 km korrika, 15 km bizikletaz eta 2 km korrika. Izen-ematea, udaletxea, Karlis, Shanti Kirolak eta Zut-en.

■ **Tolosaldea.** Eskiak Euskal Herriari 100 urte bete dituela eta atzoko eta gaurko eskiatzaileen afaria egingo da martxoaren 2an Lekunberriko Aiestaran hotelean. Izen-ematea, 670 029898 (Ane) eta 943 288652 (Alberto) telefonotan.

■ **Belauntza.** Belauntzako Kultur Etxeak Oargi Mendi Elkartearen laguntzaz Eskiatzera joateko irteera antolatutako; Otsailaren 29an iluntzean atera eta Martxoaren 1 eta 2an Candanchun eskiatzeko aukera egongo da.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunik.

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAREN egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAREN egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak